

1.- PARKATU BAI, AIZTU EZ!

Sarritan entzuten dogu esaldi au: "Nik parkatu bai, baiña aitzu ez!"

Esaldi orrek adierazpen oker bat ba-dauko: "Aitzu ez" diñonak apentza artzeko zain dagoala esan nai dauanean.

Baiña orrelan ez da beti ulertu bear esaldia: "Aitzu ez! Diñonak au esan gura izaten dau sarritan: "Ez dot aitzuko egin daustana, barriro egin ez dagistan" eta ori ondo dago. Edo beste au esan gura izaten dau: "Egin gendun ekintza orrek, ondoren ikaragarriak ekarri ebazan eta ez dogu aitzu bear barriro ondoren orreik ekarri ez dagiskuzan.

Orren antzeko zerbait esan nai dau beste esaldi onek be:" Euren edestia aitzuten daben erriak, edesti ori barriro bizi izatera dagoz beartuak".

36'ko gudaldian jazoriko gauzak gogoratuko doguz urrengo idaz-lanetan eta, gauza oreik edo antzekoak barriro jazo ez dakiguzan, gogratzen doguz.

Orretarako liburu irakurgarri bat irakurten asi gara: "Bidasoa" deritxon Ganboa'tar Jose Maria'ren liburua. Idaz-purua erderaz "Erritarren arteko guda Euzkadi'n"

Liburu onek 136 testigantza dakar, Joxemiel Barandiaran'ek batuak. Intxausti'tar Manuel'ek artu eban etxean Joxemiel, egoaldera etortetik nez eukalako, erailla izateko arriskuagagitik.

Bein baten Uztaritz'en jan eben biak, 1936n. urtean eta burubide au eskiñi eutson Manuel'ek: "Zergaitik ez doguz batzen erbesteratuta datozen euskaldunen agerpenak? Esan eta egin. Or asi zan Barandiaran agerpen orreik batzen. Orain liburu onetan agertzen diranak. 136'tik 122'k azpian dauke eguna. Urteak 1936-1937. Guztiz 67 dira 1937'koak etra 40 ostera 1938'koak

Guztiak ezin agertu ziango doguz, asko diralako, baiña bai, beintzat, gurenak.

600 000 izan ziran guda aretan illak Orreik isilik geratzen dira betiko. Ori ezin aitzu izango dogu, ez dogu aitzu bear jazokizun guztiak edestian argi agertu-arte. Ori eskatzen dau benetako baketzeak edo "transiziñoak".

...

Argitu daigun basobaltz onetako zugatz aundiak banan-banan aztertu baiño lenago, zelan dagon edesti-zale batzuren

liburuetan Gernika'ko bonbaketa.

Lenengo Pio Moa'ren eritxia. Au "GRAPO" ren zuzendaria izan zan, gero Franco'ren aldelari sutsua, eta onetan beste oneik izan ebazan lagun: Jose Manuel Martinez Bande, Ricardo de la Cierva, Ramon eta Jesus Salas Lardizabal (biak anaiak eta Franco'ren gudalburuak) eta Vicednte Talon.

Guzti oneik 1970n. urte-inguruan Gernika'ko lerkai edo bonbai garrantzia kentzen ekin eben eta Franco'ri oso-osoa erantzukizuna kentzen eutsoen, alemanak zirala errudun esanez.

Vicente Talon'en 200 izan zirala Gernika'n illak diño, baiña Pio Moa'k 100 izan zirala esan eban. Eta "bere buruaruari Eusko Jaurlearitza" esaten dautson erakundea iñoz ez zala ori izan diño, eta Mola'k Bizkaia zemaitzeko idatzi eban agiria iñok ez dauala ikusi (baiña agiri ori 1937-04-29 egunean Daili Herald'en dago).

Pio Moa'rentzat Gernika'ren bonbaketa gauza ariña izan zan eta Franco'k agindu bakoa (jakiña dala diño bonbaketa amaitu eta ordubetegarrenean Gernika geiena zutunik agiri zala eta %18 baiño ez zirala etxe erreak).

Kondor lejioa'ren buru zan Von Richthofen ei zan errudun bakarra.

Eta beti aitatzen dan Jesus Salas Larrazabal eta onen azterketa azken-erabagia dala edestian diño.

Orrelan idazten da edestia! Eskerrak edestilari egizaleai!

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!